DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2025eko irailaren 18an** / 18 de septiembre de 2025<br>**Udalbatza aretoa (Udaletxea)** / Salón de Plenos (Ayuntamiento)<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

### GAI ZERRENDA:
### ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Aurkezpen-erronda. | 1 | Ronda de presentación. |
| Aurreko bilkurako akta onartzea. (18-06-2025) | 2 | Aprobación del acta de la sesión anterior. (2025-06-18) |
| Lantaldeak. | 3 | Grupos de trabajo. |
| 2026ko aurrekontuaren proiektua | 4 | Proyecto de presupuesto 2026 |
| Diru-laguntzen deialdiari buruzko informazioa. | 5 | Información sobre la convocatoria de subvenciones. |
| San Sebastian Munduen Artean programaren 30. urteurrenaren ospakizuna | 6 | Celebración de los 30 años de Donostia Entremundos |
| GGKEren Koordinakundearen proposamenak:<br>• BDS Udaletxean.<br>• El Salvador. | 7 | Propuestas de la Coordinadora de ONGD:<br>• BDS Ayuntamiento.<br>• El Salvado |
| Dirulaguntzen deialdiari buruzko informazioa. | 8 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 9 | Información sobre próximas actividades. |

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE - Aniztasuna, Inklusioa eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE - Concejal delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • PSE-EE<br>• EH-BILDU<br>• ELKARREKIN DONOSTIA<br>• AEJ-PNV |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ADSIS FUNDAZIOA<br>• ALBOAN<br>• BAKEA ETA ELKARTAZUNA EUSKADI<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA (ACPP)<br>• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ (PBI)<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• EGOAIZIA<br>• ENRAIZA DERECHOS<br>• ETIOPIAUTOPIA TIKAL<br>• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (ICLI)<br>• LUMALTIK<br>• MEDICUS MUNDI<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK<br>• MUGEN GAINETIK<br>• MUNDU BAKEAN<br>• MUNDUBAT<br>• MUNDUKO BEGIAK<br>• NAZIOARTEKO ELKARTASUNA (NE-SI)<br>• PROYDE-PROEGA<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• SODEPAZ<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• ZEHAR ERREUXIATUEKIN<br>• GGKE KOORDINAKUNDEA |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • EMAUS |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Lankidetza teknikaria**<br>Técnica de Cooperación<br>**Lankidetza teknikaria**<br>Técnica de Cooperación<br><br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | • **Emakumezkoak /** Mujeres = **19**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **13** |
| **IDAZKARITZA:**<br>**SECRETARÍA DEL CONSEJO:** | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetza@donostia.eus |

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## BILERAREN NONDIK NORAKOAK:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **1.- Aurkezpen erronda.**<br><br>Pertsona bakoitzak bere izena eta zein erakundetatik datorren esaten du. | **1.- Ronda de presentación.**<br><br>Cada persona dice su nombre y de qué organización procede. |
| **2.- Aurreko bilkurako akta onartzea.**<br><br>Aurreko akta onartu da. | **2.- Aprobación del acta de la sesión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta anterior. |
| **3.- Lantaldeak.**<br><br>Lankidetza teknikariak lantaldeen egoera errepasatu du. Urriaren 23an politiken koherentziarako taldea bilduko da. Aurrekontuena, berriz, ekaineko Kontseiluan egin zuen 2026rako proposamena, eta gaiaren jarraipena egiten jarraitzen du. Bestalde, iaz sektorea indartzeko lantalde bat sortu zen, dirulaguntzekin oso lotuta dagoena, eta sailak proposatzen du taldea azaro aldera berriro biltzea, oinarriak aldatzeko. | **3.- Grupos de trabajo.**<br><br>La técnica de cooperación repasa la situación de los grupos de trabajo. El 23 de octubre se reunirá el grupo de coherencia de políticas. El de presupuestos, hizo su propuesta para 2026 en el Consejo de junio y sigue haciendo seguimiento del tema. Por otra parte, el año pasado se creó un grupo de trabajo de fortalecimiento del sector, que está muy relacionado con las subvenciones, y desde el departamento proponemos que el grupo se vuelva a reunir hacia noviembre para trabajar posibles modificaciones en las bases. |
| **4.- 2026ko aurrekontuaren proiektua.**<br><br>Lankidetzako zinegotziak azaldu du une honetan datorren urteko aurrekontua negoziatzen ari direla, eta laster itxita egon beharko lukeela. Oraindik ezin du zenbakiez hitz egin. Ogasun zinegotziarekin bilera egiteko dago. Informazio guztia helarazi zaio, eta laster egin ahal izatea espero da. | **4.- Proyecto de presupuesto 2026.**<br><br>El concejal de cooperación explica que en estos momentos están negociando el presupuesto del próximo año, que tendría que estar cerrado en breve. No puede hablar aún de cifras. Está pendiente la reunión con el concejal de Hacienda, a quien se ha trasladado toda la información y se espera que se pueda realizar próximamente. |
| **5.- Diru-laguntzen deialdiari buruzko** | **5.- Información sobre la convocatoria** |

10/40n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| **informazioa.**<br><br>Lankidetza-teknikariak azaldu du ebazpena urria eta azaroa bitartean argitaratzea aurreikusten dela. | **de subvenciones.**<br><br>La técnica de cooperación explica que se prevé que la resolución se publique entre octubre y noviembre. |
| **6.- San Sebastian Munduen Artean programaren 30. urteurrenaren ospakizuna.**<br><br>Azaroaren 14an, 12:00etan, topaketa bat egingo da Donostia Munduen Artean programaren 30. urteurrena ospatzeko. Laster gonbidapenak bidaliko dira | **6.- Celebración de los 30 años de Donostia Entremundos.**<br><br>El 14 de noviembre a las 12:00 se va a hacer un encuentro por el 30 aniversario del programa Donostia Entremundos. Próximamente se enviarán las invitaciones. |
| **7.- GGKEren Koordinakundearen proposamenak:**<br>• **BDS Udaletxean.**<br><br>GGKEen Koordinakundeko ordezkariak aurretik bidalitako dokumentua irakurri du. Kontseiluak iritzia ematea nahi dute. Bertan, Israelekin harreman oro hausteko pausoak eskatzen dizkiote Udalari. Eskua altxatuta bozkatzea eskatu dute, eta 25 pertsonak aldeko botoa eman dute.<br><br>Zinegotziak gogorarazi du Kontseiluak izaera parte-hartzailea eta aholku-emailea duela, eta testua bozeramaileen batzordera eramatea eskaini du. Udala ildo horretan dagoela ikusarazteko, azken urteetan onartu diren herri palestinarraren aldeko eta UNRWAri babesa emateko adierazpen instituzionalak zerrendatu ditu.<br><br>Kontseiluan testuak modu horretan onartzea komeni den ala ez eta horretarako prozedura zein izango litzatekeen eztabaidatzen hasi dira. Aurretik egindako adierazpenez galdetu dute, zeren ez dakite bozeramaileen batzordera eraman zituzten. Berriz ere bozkatu da, eta aldeko 25 boto daude (26 zenbatu dira, baina kasu batean, erakunde bereko 2 ordezkari zeuden, beraz, bakarra kontatu da), bat ere ez | **7.- Propuestas de la Coordinadora de ONGD:**<br>• **BDS Ayuntamiento.**<br><br>La representante de la Coordinadora de ONGD lee el documento enviado previamente, respecto al que desean que el Consejo se posicione. En él, se piden pasos al Ayuntamiento para romper toda relación con Israel. Se pide votación a mano alzada, y 25 personas votan a favor.<br><br>El concejal recuerda que el Consejo tiene carácter participativo, consultivo, y ofrece elevar el texto a junta de portavoces. Para hacer ver que el Ayuntamiento está en esta línea, enumera declaraciones institucionales en favor del pueblo palestino y de apoyo a UNRWA que se han aprobado en los últimos años.<br><br>Se abre un debate sobre la conveniencia o no de aprobar de esta manera textos en el Consejo, y cuál sería el procedimiento para ello. Se pregunta por declaraciones anteriores, que no se sabe si llegaron a ser llevadas a junta de portavoces. Se vuelve a votar, y hay 25 votos a favor (se contabilizan 26, pero en uno de los casos, había 2 representantes de la misma entidad, por lo que se cuenta sólo 1), |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| aurka, eta 5 abstentzio: Nazioarteko Elkartasuna, ICLI, Unicef, PSE eta EAJ.<br><br>ICLIko ordezkariak bere abstentzioa azaldu du, Gazako genozidioan inplikaziorik ez duten Israelgo enpresekin harreman komertzialak egon daitezkeela uste duelako.<br><br>Lankidetzako zinegotziak PSEren abstentzioa azaldu du, dokumentua bilera baino ordu batzuk lehenago bidali delako, eta ez dutelako udal taldean aztertzeko denborarik izan.<br><br>EAJko ordezkaria abstenitu egin da, adierazpen hori bozeramaileen batzordean bozkatu behar dela uste duelako, eta ez Kontseiluan. | ninguno en contra, y 5 abstenciones: Solidaridad Internacional, ICLI, Unicef, PSE y PNV.<br><br>La representante de ICLI explica su abstención porque considera que puede haber relaciones comerciales con empresas israelíes que no tengan implicación en el genocidio de Gaza.<br><br>El concejal de cooperación explica la abstención del PSE porque el documento se ha enviado apenas unas horas antes de la reunión, y no han tenido tiempo de analizarlo en el grupo municipal.<br><br>La representante del PNV se ha abstenido porque considera que esa declaración tiene que ser votada en junta de portavoces, y no en el Consejo. |
| **• El Salvador.**<br><br>GGKEen koordinakundeak ekarri du gaia, adieraziz ez dela soilik El Salvadorrez ari, munduko beste leku batzuetan ere gertatzen ari dela aspalditik (Palestinan, Nikaraguan…). Adierazi du Lankidetzaren Euskal Agentzia berandu ari dela erreakzionatzen, eta eskatu du toki-erakundeetan urratsak egin ahal izatea betekizunak malgutzeko eta proiektuak gauzatu ahal izateko.<br><br>Lankidetzako teknikariak azaldu duenez, proiektuei jarraipena emateko moduak aurkitzen ari dira Donostian, eta ahalik eta malguena izaten da beti. Kasu horietan teknikariekin ahalik eta azkarren hitz egiteko eskatu du, eta irtenbideak bilatuko direla. | **• El Salvado.**<br><br>La coordinadora de ONGD trae el tema, señalando que no se refiere sólo a El Salvador, sino que está sucediendo en otras partes del mundo desde hace años (Palestina, Nicaragua…). Manifiesta que la Agencia Vasca de Cooperación está tardando en reaccionar, y pide que en entidades locales se puedan dar pasos para flexibilizar requisitos y permitir que los proyectos se ejecuten.<br><br>La técnica de cooperación explica que en Donostia se están encontrando maneras de dar continuidad a los proyectos, y que siempre se es lo más flexible posible. Pide que en estos casos, se hable con el personal técnico lo antes posible, y que se buscarán soluciones. |
| **8.- Galde-eskeak.**<br><br>SEADen Lagunak elkarteko ordezkariak Palestinako aferaren aurrean Udalaren erantzun falta deitoratu du. Datozen | **8.- Ruegos y preguntas.**<br><br>La representante de SEADen Lagunak lamenta la falta de respuesta del Ayuntamiento ante el tema de Palestina. Se |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| egunetan hirian dauden mobilizazio deialdi ezberdinak gogoratu dituzte eta ostiralero lapikokadak egingo direla. | recuerdan las diferentes convocatorias de movilización que hay en los próximos días en la ciudad y que cada viernes se van a hacer caceroladas. |
| Kontseiluko hainbat kidek bat egin dute testua aho batez onartu ez izanaren kexarekin, eta Udalak Israelekin dituen zuzeneko edo zeharkako harremanak aztertu eta BDZrekin bat egiteko eskaera berretsi dute, EHU egiten ari den bezala, adibidez. | Varios integrantes del Consejo se suman a la queja de que no se haya aprobado por unanimidad el texto, y se reiteran en la petición de que el Ayuntamiento analice sus relaciones directas o indirectas con Israel y se sume al BDS, como está haciendo, por ejemplo, la EHU. |
| Zinegotziak testua bozeramaileen batzordera eramateko konpromisoa hartu du. | El concejal se compromete a llevar el texto a junta de portavoces. |
| Mugarik Gabeko Ekonomilarien ordezkariak BDZren aurreko azterketa azpimarratu du, eta empresa handien Korporazioaren Iraunkortasunari buruzko Behar Bezalako Eginbideari buruzko Europako zuzentaraua dagoela gogorarazi du. | El representante de Economistas sin Fronteras insiste en el análisis previo al BDS, y recuerda la existencia de la directiva Europea sobre Diligencia Debida en Sostenibilidad de Corporativa de las grandes empresas. |
| **9.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.** | **9.- Información sobre próximas actividades.** |
| SEADen lagunak: "Sahara, 50 urteko gatazka ahaztua" hitzaldi zikloa egingo du, urriaren 20tik 22ra, Okendo kultur etxean. | SEADen lagunak: ciclo de conferencias "Sáhara, 50 años de conflicto olvidado", del 20 al 22 de octubre, en casa de cultura Okendo. |
| Lumaltik: irailaren 25ean, 20:00etan, ReRead liburu-dendan, hitzaldia emango du Argentinako maputxeen parlamentuko kide batekin. | Lumaltik: el 25 de septiembre a las 20:00 en la librería ReRead, dará una charla con un integrante del parlamento mapuche de Argentina. |
| Saretuz: irailaren 27an, 11:00etan, denboraren erabilerei eta zainketei buruzko festa bat antolatuko du Uliako mintegietan. | Saretuz: el 27 septiembre a las 11:00 organizará una fiesta sobre usos del tiempo y cuidados en los viveros de Ulia. |
| Zero Pobrezia: hainbat ekintza antolatuko ditu urriaren 17aren inguruan. | Pobreza Cero: organizará diversas actividades en torno al 17 octubre. |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| Hurrengo osoko bilkura abenduaren 11n izango da. | Se recuerda que el próximo pleno será el 11 de diciembre. |

10740n XVII